

AZTERKETAK | 45

2022ko AZAROA

Soldaten bilakaera Hego Euskal Herrian: pobretzea eta prekarietatea

Soldaten bilakaera Hego Euskal Herrian: pobretzea eta prekarietatea

1. Sarrera	3
2. Gipuzkoako soldaten azterketa (2008-2020)	4
2.1. Urteko batez besteko soldata nominalaren igoera % 0,67 izan zen	4
2.2. Soldata erreala urtero batez bestez 1.164 euro murriztu zen.....	5
2.3. Errenta txikienek altuek baino askoz gehiago galdu zuten	7
2.4. Desberdintasunak areagotu egin ziren	8
2.5. Generoko soldata-arrakala ez zen ia murriztu.....	9
2.6. Migratzaileek erdia irabazi zuten 2020an.....	10
2.7. Gazteen soldata LGSaren azpitik.....	11
3. 2021eko eta 2022ko soldatak: eros-ahalmenaren galera areagotzen ari da	12
4. HEH-ko soldatak Europako batez-bestekoaren azpitik	13
5. Produktibitatea soldaten gainetik igotzen da	13
6. Ondorioak	15
7. Proposamenak	16

1. SARRERA

Langile klaseak bere lan-indarra saltzeagatik jasotzen duen diru-ordainsaria da soldata, baina aipatu behar da langileari ez zaiola sortzen duen guztia ordaintzen, kapitalistak produzitutako balioren zati bat bereganatzen baitu. Beraz, esan daiteke, soldatak langile klaseak bizirauteko eta erreproduzitzeko behar duen bitartekoa dela, eta, horregatik, horren azterketa ezinbestekoa dela deritzogu. Azterketa hori duela urte askotatik egin dugu, baina egoera honetan garrantzi handia hartzen du, bizitzen ari garen testuingurua dela eta.

Ekonomia goitik behera nahasi zuen pandemia batetik gatoz. Aurrekaririk gabeko krisi ekonomiko horretan, eragile ekonomiko ezberdinek galerak izan zituzten baina, bereziki, langileria izan zen kaltetuena. Azken hilabeteetan, covid-a gure bizitzaren erdigunetik urruntzen ari zela zirudienean, shock berri bat agertu zen: inflazioaren mamua. Prezioak garestitzen hasi ziren laurogeiko hamarkadatik ez bezala, batez ere energiaren garestitzearekin, eta ondoren produktu eta zerbitzu gehienetara hedatu zen.

Hala ere, shock berri honek ez die guztiei berdin eragiten. Enpresek mozkinen igoera errekorra lortu dute, baina irabazi horiek ez dira soldata-errentetara trasladatu. Soldatak geldituta eta prezioak izugarri garestituta, erosahalmena galtzen ari da. Hori biztanleria osoaren poltsikoetan nabaritzen da, baina, bereziki, errenta baxuenen artean. Gaur egungo testuinguruan, soldaten aurkako eraso errealitate bat da, eta ez du inolako eztabaidarik. Hala ere, gutxi hitz egiten da XXI. mendea hasi zenetik soldatekin gertatu denaz. Horregatik, interesgarria eta beharrezkoa iruditzen zaigu 2008ko krisiaz geroztik izandako ondorioen azterketa egitea.

Aipatu beharra dago EAEko hiru aldundiek eta Nafarroako Gobernuak Hego Euskal Herriko soldatei buruzko informazio esanguratsua duten arren, Gipuzkoako Foru Aldundiak bakarrik argitaratzen dituela horri buruzko datuak. Argitaratutako azken dokumentua "Soldatak, pentsioak, langabezia-prestazioak eta gizarte aurreikuspeneko erreskateak Gipuzkoan 2020" izena du. Dokumentu horretako datuak lan-etekinen, jarduera ekonomikoen eta sarien gaineko atxikipen eta konturako sarreretatik lortu dira. Datuak Gipuzkoakoak bakarrik izan arren, uste dugu beste lurraldeetan egoera eta bilakaera antzekoak direla, baita are txarragoak, eta, beraz, Hego Euskal Herri osorako baliozkotzat jotzen ditugu ondorioak.

Dokumentu honetan, lehenik eta behin, Gipuzkoako soldatak hainbat ikuspuntutatik aztertuko ditugu. Horrek datuak eskaintzen diren azken urtearen (2020 urtea) argazki osoa emango digu, baita 2008ko krisiaz geroztik gertatu denarena ere. Besteak beste, honako hauek aztertuko ditugu: soldata erreala, soldata-desberdintasunak soldataren banaketaren bidez, gizonen eta emakumeen arteko soldata-arrakala, migratzaileen egoera eta gazteen prekarietatea. Gainera, 2021eko eta 2022ko soldatei buruzko txostenik ez dugun arren, azken bi urte hauetako langile-klasearen ordainsariekin gertatzen ari dena aipatuko dugu, non inflazioa izan den protagonista nagusia. Horrekin batera, Hego Euskal Herria Europa mailan nola kokatzen den eta produktibitatearen eta soldaten arteko erlazioa aztertuko dugu. Amaitzeko, egoera iraultzeko hainbat neurri proposatzen ditugu.


2. GIPUZKOAKO SOLDATEN AZTERKETA (2008-2020)

2.1. Urteko batez besteko soldata nominalaren igoera % 0,67 izan zen

2020an, Gipuzkoako batez besteko soldata 25.898 eurokoa izan zen, aurreko urtean baino 75 euro gutxiagokoa. Soldataren bilakaerak, 2008ko finantza-krisia hasi zenetik, ez du aldaketa handirik erakusten. 2008 eta 2020 bitartean, soldatak % 8,1 baino ez ziren igo. Horrek esan nahi du adierazitako aldiaren soldaten urteko igoera % 0,67 baino ez zela izan.

2008tik 2011ra, krisi ekonomikoa gorabehera, soldata 23.950 eurotik 24.659 eurora igo zen. Hala ere, igoera hori ez zen gertatu ordainsariaren igoeragatik, baizik eta krisiak eragindako enplegu prekarioaren (soldata baxuenen) suntsipenagatik. 2012ko jaitsieraren eta 2013ko igoera txikiaren ondoren, ordainsariak ia ez ziren mugitu 2017ra arte. 2018an eta 2019an, igoera handiak izan ziren, batez besteko soldata 1.500 euro inguru igo baitzen, eta, horrela, maximo historikora iritsi zen (25.973 euro). Aipatu behar da, aldi guzti horretan, enpresa-irabaziak eta BPGa soldatak baino gehiago hazi zirela. Ondorioz, langile-klaseak jasotzen zuen pastelaren zatia murriztu zuen.

Batez besteko soldata nominalaren bilakaera (eurotan)



Iturria: ELAko Azterketa Bulegoak egina, Gipuzkoako Foru Aldundiaren datuekin

Soldata medianoa da langileen kopurua bi zati berdinetan banatzen duena: soldata handiagoa dutenak eta soldata txikiagoa dutenak. Hau da, soldata altuenak dituzten langileak eta soldata baxuenak dituztenak kopuru bera dira. Balio hori 22.799 eurokoa izan zen 2020an, beraz, batez besteko soldata (25.898) baino txikiagoa. Horrek esan nahi du soldata gehiago izan zirela batez bestekoaren azpitik gainera baino. 2008tik 2020ra bitarteko medianaren igoera % 5koa izan zen, hau da, batez bestekoa baino txikiagoa (% 8,1). Horrek esan nahi du desberdintasunak hazi egin zirela batez bestekoaren azpitik zeuden soldatak jaso zituztenen eta gainera zeuden artean.

Soldaten bilakaera Hego Euskal Herrian: pobretzea eta prekarietatea

Batez-besteko soldataren eta soldata medianoaren eboluzioa (eurotan)

	2008	2020	Dif.
Batez-bestekoa	23.950	25.898	+8,1%
Mediana	21.708	22.799	+5%


5. or.

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia

2.2. Soldata erreala urtero batez bestez 1.164 euro murriztu zen

2008 eta 2020 artean KPIaren igoera % 12,3koa izan zen, soldataren %8,1eko igoera baino handiagoa. 4,2 puntuko alde horrek langile-klasearen erosteko gaitasuna murriztea ekarri zuen. Hurrengo grafikoan soldata nominalaren bilakaera eta KPIaren indizea ikus daitezke (100 oinarria 2008an).

Soldaten eta KPIren bilakaera (100 oinarria 2008an)




Iturria: ELAko Azterketa Bulegoak egina, Gipuzkoako Foru Aldundia eta EINEko datuekin

Badakigu soldata nominala soldatapekoak jasotzen duen diru-kopurua dela. Soldata errealak, aldiz, soldata nominala jasotzen duen pertsonaren erosahalmena neurtzen du. Beraz, soldata erreala jakiteko, inflazioak soldata nominalean duen eragina kendu behar da.

Hurrengo grafikoak soldata erreala izan duen bilakaera aztertzen du 2020ko prezio konstanteetan. Ondorioa argia da: 2008 eta 2020 artean langile klaseak erosteko ahalmena galdu zuen. 2008an, batez besteko soldata erreala 26.889 eurokoa izan zen, eta zenbateko hori murrizten joan zen 2009tik aurrera (jaisiera handiak izan ziren 2010ean eta 2011n), 2014an urte horretara arteko gutxienekora iritsi arte. 2015ean eta 2016an igoera txiki bat izan zen eta 2017an berriz ere jaitsi zen. Lehen aipatu ditugun 2018ko eta 2019ko igoerek, neurri batean, aurreko urteetan izandako galera konpentsatu ahal izan zuten, baina ez zen izan nahikoa 2008ko mailara iristeko.

Batez besteko soldata errealaren bilakaera eurotan (2020ko prezio konstanteetan)



Iturria: ELAko Azterketa Bulegoak egina, Gipuzkoako Foru Aldundia eta EINEko datuekin

Igoera horiek gorabehera, 2020an soldata erreala 25.898 eurokoa izan zen. Beraz, 2020an galera 991 eurokoa izan zen 2008arekin alderatuta, termino erlatiboetan % 3,7. Hamaika urteko aldi horretan galdu zena batuz gero, zenbateko osoa 13.968 eurokoa da. Hau da, urteko batez besteko murrizketa 1.164 eurokoa izan zen.


2.3. Errenta txikienek altuek baino askoz gehiago galdu zuten

Soldata errealararen batez bestekoa aztertu ondoren, egokia deritzogu errenta-mailaren araberako soldaten azterketa egitea, ikusiko dugunez, soldatek bilakaera oso desberdina izan dutelako. Kasu honetan, Aldundiaren txostenak dezilen araberako datuak ematen ditu. Dezilak osatzeko, errenta txikienetik handienara soldata jasotzen duten pertsona guztiak ordenatzen dira, eta jasotzaile kopuru bera duten hamar talde eratzten dira. Horrela, talde bakoitza pertsona jasotzaile guztien % 10 da: lehen dezilak (D-1) soldata txikiak jasotzen dituzten % 10 biltzen du, eta azken dezilak (D-10) soldata handienak jasotzen dituzten pertsonen % 10.

Hurrengo grafikoan ikus dezakegu soldaten aldakuntza 2008koaren aldean. Dezilen araberako analisiak erakusten du bederatzigarren dezilak soilik eutsi ziola soldata errealarari 2008arekin alderatuz. Bestela esanda, erosahalmenari eutsi zion, soldata-igoera KPI baino handiagoa izan baitzen. Gainerako talde guztiek erosteko ahalmena murriztu bazuten ere, oso desberdina izan zen murrizketa hau.

Ikusten dugu goiko dezilek (D8 eta D10) soldata KPItik gertu igo zutela. Dezilak murriztu ahala, soldaten aldakuntzak behera egiten du. Hala, D7ko eta D6ko soldata 9,2 eta 6,6 puntu handiagoa izan zen 2008an baino, eta D5ekoa, berriz, ia ez zen mugitu. Dezil baxuagoetan (D1etik D4ra) aldakuntza negatiboa ikusten da, eta horrek erakusten du soldatapeko biztanleria horrek soldata nominal txikiagoa izan zuela 2020an, 2008arekin alderatuz. Soldataren murrizketarik handiena errenta baxuen artean gertatu zen (-% 9,6), eta ondoren hurrengo deziletan eman zen, -% 7,5 eta -% 6,1, hain zuzen

Soldaten aldakuntza 2008arekiko, dezilen arabera




Iturria: ELAko Azterketa Bulegoak egina, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta EINEko datuekin

2.4. Desberdintasunak areagotu egin ziren

Bilakaera horren ondorioz, desberdintasunak areagotu egin ziren. Datuak izugarriak dira: soldata txikienak (1. dezila) izan zituzten pertsonen % 10ak soldata guztien % 0,5 metatu zuten 2020an. Soldata handienak (D-10 dezila) jaso zituzten % 10ak, berriz, guztizkoaren % 27,3 metatu zuten. Azken bi dezilek, hau da, gehien irabazitako soldaten % 20ak soldata osoaren % 44 jaso zuten. Soldata baxuenen % 20ak, berriz, % 2,7 baino ez. Desberdintasuna islatzen duen beste datu bat da soldata altuenen % 10ak errenta txikieneko biztanleriaren ia % 60aren soldata bera izan zuela.

2020ko soldaten banaketa dezilen arabera (ehunekotan)



Iturria: ELAko Azterketa Bulegoak egin, Gipuzkoako Foru Aldundiaren datuekin

D10/D1 soldata-ratioak goiko dezilean dauden pertsonen jasotako zenbateko globala beheko dezilean dauden pertsonen jasotakoarekin alderatzen du. 2020an, 50,9ko ratioa egoteak esan nahi du soldata handienak izan zituzten biztanleen % 10ak jasotako soldatak 50,9 aldiz handiagoak zirela soldata baxuenak zituzten biztanleen % 10ak jasotakoak baino, 2008an ratio hori 38,9koa izan zen. Beraz, desberdintasunak handitu egin ziren, aldea 33,9an igoz hamabi urte horietan.

Soldaten diferentzia D1 eta D10 artean

	2008	2020	Diferentzia
Soldatak D10/D1	38,9	50,9	+33,9


Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia

2.5. Generoko soldata-arrakala ez zen ia murriztu

Soldaten gaia jorratzen dugunean, ezinbestekotzat jotzen dugu genero-desberdintasunen egiturazko ondorio larriak aztertzea eta salatzea. Genero-azterketa sakonago egitea gustatuko litzaiguke, baina Aldundiaren txosteneko datuek ez dute horretarako aukerarik ematen.

2020an emakumeak biztanleriaren % 51,7 ziren arren (EINen datuak), enplegua zuten soldatapeko emakumeen ehunekoa dezente txikiagoa izan zen (% 46,6). Hala ere, esan behar da, bilakaera positiboa izan zela, 2008tik 2019ra enplegu formalean sartu ziren emakumeen kopurua 129.579 izatetik 149.143 izatera igaro zela Gipuzkoan, azken urtean 145.367ra murriztu zen arren. Emakumeek eta gizonak jasotako soldataren zenbatekoari erreparatzen badiogu, kopuruek desberdintasun handia erakusten dute. Emakumeek soldata guztien % 40,1 baino ez zuten jaso, eta gizonak % 59,9. Honek, 20 puntuko aldea erakusten du.


Soldaten banaketa sexuaren arabera 2020an



Iturria: ELAko Azterketa Bulegoak egina, Gipuzkoako Foru Aldundiaren datuekin

Soldatapeko emakume langileen soldataren batez bestekoak ere alde handia erakusten du gizonenarekin alderatuta. 2020an, emakumeen batez besteko soldata 22.601 eurokoa izan zen; gizona, berriz, 29.476 eurokoa. Aldea, beraz, 6.875 eurokoa izan zen, hau da, gizonen eta emakumeen arteko soldata-arrakala % 23,3koa izan zen 2020an. 2008an, aldea handiagoa zen termino nominaletan, 7.813 eurokoa, eta soldata-arrakala % 28,2koa zen. Hala ere, 2010ean arrakala % 24,3ra murriztu zen. Beraz, hamarkada batean, arrakala puntu bakar batean murriztu zen.

Emakumeen eta gizonen batez besteko soldaten bilakaera (eurotan)



Iturria: ELAko Azterketa Bulegoak egina, Gipuzkoako Foru Aldundiaren datuekin


Ezin daiteke ahaztu soldatapeko emakume enpleguaren soldata aztertu dugula Ogasunean dauden datuekin. Azterketa horretatik kanpo geratzen dira, beraz, zaintza-lanak egiten dituzten emakume asko. Horregatik eta beste faktore batzuegatik, esan dezakegu desberdintasunak hemen aztertu ahal izan ditugunak baino oraindik handiagoak direla.

2.6. Migratzaileek erdia irabazi zuten 2020an

Atal honetan, pertsona ez migratzaileen soldatak (Espainiako nazionalitatea dutenak) pertsona migratzaileen soldatekin (atzerriko nazionalitatea dutenak) alderatuko ditugu. Hori da Gipuzkoako Aldundiak egiten duen bereizketa. Langile migratzaileak soldatapekoen % 7,4 izan ziren 2020an, hau da, 23.623 pertsona. Krisiaren ondorioz, 2008tik aurrera migratzaileen kopurua murrizten joan zen 2015era arte (15.792). 2015 eta 2019 artean gorakada izan zen, baina egia da azken urtean 1.097 pertsona gutxiago izan zirela.

Behin eta berriz salatu den bezala, migratzaileen soldata oso prekarioa da. Datuek hori berresten dute. Soldata-arrakala handia dago ez migratzaileen eta migratzaileen artean. Ez migratzaileek 26.845 euroko batez besteko soldata jaso zuten, eta migratzaileek, berriz, erdia inguru (% 47,7 gutxiago), hau da, 14.033 euro. Aipatzekoa da 2008tik migratzaileen batez besteko soldaten igoera % 10 igo zela, KPIren igoera baino ehuneko txikiagoa. Beraz, erosteko ahalmena ere murriztu egin zen 2008ko krisiaz geroztik, nahiz eta gutxieneko soldataren igoerak ondorio positiboak izan zituen biztanleriarengan.

Soldataren zenbatekoa jatorriaren arabera 2020an




Iturria: ELAko Azterketa Bulegoak egina, Gipuzkoako Foru Aldundiaren datuekin

Adierazi behar da, emakumeen kasuan bezala, migratzaile asko (emakumeak gehienak ere bai) estatistiketatik kanpo geratzen direla, askok kontraturik gabe lan egiten baitute, eta horrek ez du uzten migratzaileen benetako errealitatea ezagutzen.

2.7. Gazteen soldata LGSaren azpitik

Langile-klaseko gazteak izan dira krisi garaietan kolpatuenak. 2008ko krisian ikusi genuen, eta, errekuperatu beharrean, beste kolpe gogor bat hartu dute Covid-19ak eragindako krisiarekin. Aldundiaren dokumentuak ez du argitaratzen adinaren arabera soldaten bilakaera, 2020ko datuak baino ez ditu ematen, eta, beraz, ezinezkoa da bilakaeraren azterketa hori egitea. Txostenaren zifrek adierazten dute biztanleria gazteenaren artean dagoen prekarietatea oso handia dela. Bertan ikusten dugu batez besteko soldatak gora egiten duela adinak gora egin ahala. Beraz, gehien irabazten dutenak 56 eta 65 urte bitartekoak dira (31.024) eta gutxien irabazten dutenak 19 eta 25 urte bitarteko gazteak (8.570).

Soldaten banaketa adinaren arabera 2020an (eurotan)



Iturria: ELAko Azterketa Bulegoak egina, Gipuzkoako Foru Aldundiaren datuekin

Gazteek jasotzen duten zenbatekoa ez da lanbide arteko gutxieneko soldatara ere iristen. Hila-betetan adierazitako zifra kalkulatu badugu (14 ordainsari), hilean 612 euro baino ez ziren izan. Gogora dezagun 2020an LGSa 950 eurokoa zela, eta, beraz, gazteen batez besteko soldata LGSa baino 338 euro txikiagoa izan zela. Gazteak muturreko mendekotasun-egoeran bizi direla ondorioztatzen da. Ez dira soldatak bakarrik, beste faktore batzuek ere agerian uzten dute bizimodu independentearen proiekturik ez dagoela: prekarietatea (lanaldi partzialeko eta aldi baterako kontratuak), etxebizitzaren prezioa eta alokairua, etab.

3. 2021EKO ETA 2022KO SOLDATAK: EROS-AHALMENAREN GALERA AREAGOTZEN ARI DA

Gipuzkoako Foru Aldundiak 2021eko eta 2022ko txostenak argitaratu ez baditu ere, beste iturri batzuetako datuekin baieztatu dezakegu soldatek erosahalmena galdu dutela 2021ean eta, are gehiago, 2022an.

Gogora dezagun 2021eko urteko inflazioa % 6,5koa izan zela. Soldata-errentak, ordea, ez ziren modu berean igo, eta erosteko ahalmenaren galera hori egiaztatzen duten hainbat iturri daude. Alde batetik, Espainiako Estatuko Lan eta Gizarte Ekonomia Ministerioak argitaratzen dituen erregistratutako hitzarmenen datua dago. Bertan erakusten denez, EAEn, 2021eko abenduko soldata-igoera % 0,9koa izan zen, eta Nafarroan % 1,6koa. Gainera, pentsiodunek erosteko ahalmenean hiru puntu baino gehiago galdu zuten, pentsioen igoera % 3,5ean geratu baitzen. Gauza bera gertatu zen Lanbide arteko Gutxieneko Soldatarekin, 2022rako % 3,4 bakarrik igo baitzen. Horrek bereziki kalte egin zien diru-sarrera txikiagoak zituzten soldatapekoei. Baita administrazio publikoen zerbitzuko langileekin ere, % 2ko igoera ezarri baitzitzaien.

Soldaten datu berrienak Espainiako Estatistikako Institutu Nazionalak lan-kostuari buruzko hiru-hilekoko inkestaren bidez ematen dituenak dira. Inkesta hori aurtengo bigarren hiruhilekoari dagokio. Hurrengo taulan ikus daitekeenez, Nafarroan eta EAEn soldata-kostuak % 2 baino gutxiago igo dira. Hiruhileko horretan KPIaren batez bestekoa % 9koa izan da, hau da, soldata-kostuen igoera baino 7,1 eta 7,5 puntu handiagoa.

Soldata-kostu totala (eurotan)

	2021 2T	2022 2T	Diferentzia
Nafarroa	2.228	2.271	+1,9%
EAE	2.263	2.298	+1,5%

Iturria: INEren soldata-kostuaren hiruhilekoko inkesta


Erregistratutako hitzarmenen iraileko azken argitalpenakren arabera, % 5eko soldata-igoera izan da EAEn eta % 4,5koa Nafarroan, hilabete horretan erregistratutako inflazioaren erdia (% 8,9). Baina soldata igoera horrek 181.500 langileri bakarrik eragin dio. Gainera, egoera zifra horiek adierazten dutena baino larriagoa da. Lan Harremanen Kontseiluak (LHK) abuztuan emandako datuen arabera, EAEn soldaten igoera % 3,8koa baino ez zen izan. LHK-k ere adierazi du langileen % 36,1ek soilik zutela hitzarmena indarrean aurtengo abuztuan. Gainerako % 54,5 luzatuta edo berritzeko zain zeuden, eta % 9,4k eroritako hitzarmenak zituzten.

4. HEH-KO SOLDATAK EUROPAKO BATEZ-BESTEKOAREN AZPITIK

Gipuzkoako eta Hego Euskal Herriko soldatekin zer gertatu den ikusi ondoren, gure lurraldea Europa mailan non dagoen aztertzeari ekingo diogu. Europako herrialdeetako datuak Adecco-tik hartu dira, eta hauek Eurostatetik atera dira. EAEko eta Nafarroako zifrak, aldiz, INEren soldata-kostuari buruzko hiruhilekoko inkestatik abiatuta kalkulatu ditugu.

EAEko batez besteko soldata arrunt gordina 2.051 eurokoa izan zen 2021ean. Nafarroan, berriz, 1.883 eurokoa. Europar Batasuneko batez besteko ordainsaria, ordea, 2.194 eurokoa izan zen. Hala, EAEko batez besteko soldata Europakoa baino 143 euro txikiagoa izan zen (-%6,5) eta Nafarroakoa 311 euro txikiagoa (-%14,2). Konparazio horretan, zerrendako lehenak Luxenburgoko eta Danimarka izan ziren, hilean 3.500 euro ingururekin. Batez bestekoaren gaineratik zeuden gainerako belatzak (Alemania, Herbehereak, Austria eta Suedia); Irlanda, Belgika, Finlandia eta Frantziarekin batera. Taularen amaieran Bulgaria, Errumania eta Hungaria kokatu ziren, batez bestez hilean 562 euro eta 798 euro artean irabazi ziren herrialde horietan.

Hileko batez besteko soldata EBn 2021ean (eurotan)




Iturria: ELAko Azterketa Bulegoak egina, The Adecco Group Institute eta EINeko datuekin

5. PRODUKTIBATEA SOLDATEN GAINETIK IGOTZEN DA

Enpresa-zirkuluetatik eta ortodoxia neoliberalerako zenbait pertsonaiengandik, behin eta berriz adierazten dute soldaten igoerak ez lukeela KPIrekin indexatuta egon behar. Soldatak produktibitateari lotzeko ideia berresten dute. Horregatik, beharrezkoa ikusten dugu adierazle hori aztertzea eta soldatekin alderatzea. Zehazki, bi bidetatik aztertuko dugu harreman hori. Alde batetik, produktibitateak 2008tik izan duen aldakuntza eta, bestetik, Europako ingurunearen egoera erakutsiko dugu.

Produktibitateak langile bakoitzaren ekoizpen-ahalmena neurtzen du. Adierazle hau honela kalkulatu dugu: BPG nominala prezio arruntetan, lanaldi osoko lanpostu baliokideen arteko zatidura eginez. Hurrengo orriko grafikoan ikus daitekeenez, igoera nabarmena izan da. 2008tik 2020ra bitarteko ia urte guztietan igoera bat gertatu zen, 2009an eta covid-19aren urtean izan ezik. Azken urtean behera egin zuen arren, aztertutako aldian produktibitatea % 14,4 igo zen termino konstanteetan.


Produktibitatearen bilakaera (prezio arrunteko BPG nominalaren eta lanaldi osoko lanpostu baliokideen arteko zatidura)



Iturria: ELAren Azterketa Bulegoak egina, Eustateko datuekin

Bigarren atalean soldata erreala aztertu dugu. Kasu honetan ere, produktibitatea aztertu ondoren, erreala ere kalkulatu dugu. Produktibitate erreala kalkulatzeko, lehendabizi BPG erreala kalkulatu behar da eta horretarako beharrezkoa da BPGaren deflaktorea aplikatzea. Ondoren, bilakaera argiago ikusteko soldata errealarari eta produktibitate errealarari 100 balioa eman diegu 2008an. Hurrengo grafikoak are nabarmenago uzten du bi balioen arteko bilakaeraren aldea. Lehen esan bezala, 2008tik 2020ra soldatek % 3,7 galdu zuten termino errealetan, baina produktibitate erreala % 8,1 igo zen.


Produktibitatearen eta soldata errealaren bilakaera (100 oinarria 2008an)



Iturria: ELAren Azterketa Bulegoak egina, Eustateko eta Eusko Jaurlaritzako datuekin

Horrez gain, beste datu esanguratsu bat ere badago. Aurreko atalean, Europako batez besteko soldata herrialdeka erakutsi dugu. Bertan ikusi ahal izan dugunez, EAE eta Nafarroa EBko batez bestekoaren azpitik daude, % 6,5 eta % 14,2, hurrenez hurren. Aitzitik, Eustatek argitaratzen duen produktibitatearen alderaketak erakusten du EAEko emaitza batez bestekoaren oso gaintik dagoela. Lau herrialde bakarrik daude gaintik (Luxenburgo, Belgika, Danimarka eta Suedia) eta, parean, Frantzia. Zehazki, zifrek adierazten dute EAE Europar Batasuneko batez bestekoa baino 14 puntu gorago dagoela. Oraingo honetan, garrantzitsua da adieraztea pandemia baino lehen, beraz, lehen aipatu dugun produktibitatearen murrizketaren aurretik eta bigarren atalean aztertu dugun garaian, EAE hirugarren postuan zegoela.

Lan-produktibitatea Europar Batasuneko enplegatuko 2021ean (EB 27 = 100)



Iturria: ELAren Azterketa Bulegoak egina, Eustateko datuekin

6. ONDORIOAK

Lehenik eta behin, soldatei eta aberastasunaren banaketari buruzko informazio eta gardentasun gabezia larria azpimarratu behar da. Horrek ezberdintasun sozialak betikotzen laguntzen baitu eta boterean jarraitzeko boterea dutenei erraztasunak ematen dizkie. Errealitate hori ezkutuan mantentzeko interes enpresariala agerikoa da.

Txosten honen ondorioak argiak dira: soldaten devaluazioa eta langile-klasearen pobretzea aspaldidanik gertatzen ari den gertaera empiriko eta egiaztagarria da. Klase kapitalistak, bere mozkin-tasa handitzeko, kostuak murriztu behar ditu eta horrek langile klaseari zuzeneko soldata moduan ordaintzen dizkion errentak murriztea dakar. Horregatik, botere ekonomiko eta finantzarioak soldaten aurkako erasoaldia garatzen du, langile klasearen bizi-baldintzak okertzearen kontura. Esan bezala, populazioa jabetzen da erosteko ahalmenaren galerari dagokion egungo koiunturaz, hala ere, soldaten devaluazio-prozesua denboran zehar luzeagoa denean, fenomeno hori oharkabea pasatzen da.

Txostenetik ateratzen den beste konklusio bat da soldata erreala murrizten denean, soldata hori ez dela berriro berreskuratzen hazkunde ekonomiko garaian. Ekonomia uzkuratzen ari den enpresa askok diote ez dutela nahikoa irabazirik enpleguari eusteko edo soldatak igotzeko. Hala ere, ikus dezakegun bezala, irabazien zifra errekorrak dauden garaian, irabaziak ez dira soldata-errentetara trasladatzen.

Aipatu beharreko beste gai bat lan-errenten arteko soldata-desberdintasuna da. Diru-sarrera handienak dituzten % 10eko batez besteko soldatak 51 aldiz handiagoak dira diru-sarrera txikiagoak dituzten % 10eko soldatak baino. Gainera, ikusi ahal izan dugunez, 2008tik 2020ra bitarte, desberdintasun hori areagotu egin da, askoz ere galera handiagoa gertatu baita errenta baxuenean.

Desberdintasun hori kolektibo zaurgarrienen pairatzen dute, soldata-arrakal mota desberdinek erakusten duten bezala. Alde batetik, emakumeen soldatak gizonenak baino askoz baxuagoak dira (% 23). Migratzaileak ere oso kolektibo prekarioak dira, eta soldataren erdia jasotzen dute migratzaile ez direnekin alderatuz. Baita ere aipatu behar da erabateko prekarietatean bizi diren gazteen egoeraz. Gogora dezagun beraien soldata ez dela LGSra ere iristen.

Gainerako herrialdeekiko alderaketari dagokionez, datuek erakusten dute soldatak Europako batez bestekoaren azpitik daudela; baina ez, ordea, produktibitatea. Kontinenteko maila altuenetan egoteaz gain, azken urteetako soldaten igoera baino askoz handiagoa izan baita honen bilakaera. Beraz, ez da oso logikoa patronalak soldaten eta produktibitatearen indexazioa eskatzea.

7. PROPOSAMENAK

Txosten honetan azaldutako guztiagatik, hainbat neurri hartu behar dira erosteko ahalmenaren murrizketa iraultzeko eta prekarietatearen aurka borrokatzeko:

1. Gutxienez aurreko urteko KPIa duten soldata-igoerak. Errenten itunari ez

Beharrezkoa da langileen erosteko ahalmena bermatzea. Soldata-igoerek, gutxienez, aurreko ekitaldiko KPIa izan behar dute, eta azken urteetan galdutakoa berreskuratu behar da.

Errenten ituna soldatek erosteko ahalmena galtzeko eta bake soziala egoteko tresna gisa planteatzen da. Testuinguru horretan, klase kapitalistak langileei irabaziak bereganatzea dakar.

2. 1.400 euroko gutxieneko soldata Hego Euskal Herrian eta lanbide arteko gutxieneko soldataren marko propioa

- Hego Euskal Herriko gutxieneko soldata hilean 1.400 eurokoa izan behar da.
- Gutxieneko soldataren zenbatekoa gure lurraldean erabaki behar da.

3. Gehieneko diru-sarrera ezartzea

Sistema kapitalistaren logikak diru-sarreraren desberdintasunak etengabe handitzea dakar. Horri amaiera eman behar zaio, eta, horretarako, neurri erradikal bat (arazoaren sustraira joango litzatekeena) gehieneko diru-sarrera bat ezartzea izango litzateke, pertsonaren diru-sarreraren iturri guztiak kontuan hartuko litzatekeena, eta horren gainetik % 100eko zerga-tasa ezarriko litzateke.

4. Genero-arrakalarekin eta adinak, sexuak eta jatorriak sortzen dituzten prekarietate-egoerekin eta diskriminazioarekin amaitzea

Genero-arrakala amaitzea eta lan-prekarietatea desagerraraztea soldata justuagoak ahalbidetuko lituzketen neurriak dira. Horretarako, besteak beste, honako neurri hauek behar dira:

- Astean gutxienez 20 orduko kontratua ezartzea, lanaldi partzialek dakarten pobrezia saihesteko. Era berean, enpresek lanaldi partzialak behin betiko osatu beharko dituzte ordu erabilgarriak geratzen direnean edo lan-kargak handitzen direnean.
- Azpikontratutako pertsonen subrogazio-eskubidea bermatuta izatea, hau da, enpresa nagusia azpikontrataz aldatzen denean enpresa berrian lan egiteko eskubidea ziurtatuta izatea.
- Iruzurrezko behin-behineko langileen kaleratzeen deuseztasuna ezartzea.
- Iruzurrez kontratatutako behin-behineko langileak kontsolidatzea administrazioek.
- Ikuskatzaileen kopurua Europarekin parekatzea, soldata-eskala bikoitzei, kontratazioko iruzurrari eta lan-osasun ona bermatzeari aurre egiteko. Horrek ikuskatzaileen kopurua bikoiztea ekarriko luke.

5. Lanaldi-murrizketa

100 urte baino gehiago igaro dira La Canadienseko greba egin zutenetik, Bartzelonan 40 orduko lanaldia ezartzea ekarri zuen borroka eredu garria. Hausnarketa kolektibo baten arrazoia izan beharko litzateke, orduetik hona gertatu diren aurrerapen teknologiko eta produktibitate aurrerapen guztiekin, lanaldiaren legezko erreferentziak zifra horretan bertan jarraitzea. Era berean, sindikatuek beste bultzada bat eman beharko liokete lanaldia murrizteari, aberastasuna banatzeko eta enplegua sortzeko mekanismo gisa. 1999an 35 orduko lanaldiaren aldeko greba orokorra deitu genuen. Sektore batzuetan (batez ere, publikoan) eta enpresetan lortu genuen, baina beharrezkoa da 35 ordura murrizteko aldarrikapenari indarrez heltzea, 32 orduko bidean.

6. Negoziazio kolektiboa Euskal Herrian egin behar da

Euskal Herriko lan baldintzak Euskal Herrian erabaki behar dira. Lan Harremanen eta Gizarte Babesaren Euskal Esparrua sustatu behar da gure baldintzak erabakitzeko, lan-erreformetan eta negoziazio kolektiboan onartutako atzerapausoak eraginik gabe utzita.

7. Bermatutako gutxieneko diru-sarrerak

Lehenengo neurria EAEn eta Nafarroan DSBEaren zenbatekoan azken urteetan aplikatutako murrizketetan atzera egitea izan behar da, eta horri gehitu behar zaizkio Euskal Herriko Gizarte Eskubideen Kartaren pobrezia eta gizarte-bazterkeriaren aurka jasotako neurriak. Behar dituzten pertsona guztientzat diru-sarrera duinak izatea justizia sozialeko elementu bat da, eta, gainera, prekarietate handieneko eta soldata baxuko egoerak saihestuko lituzke.

8. Prezioak mugatzea

Gaur egungo koiunturari dagokionez, egiaztatu da soldatek ez dutela prezioen goranzko zurrumbiloa eragin. Esan dugun bezala, prezioen igoera eskaintzaren aldetik dator. Gainera, enpresa askok egoera aprobetxatu dute marjinak handitzeko, prezioak artifizialki handituz. Horregatik, soldatei ez ezik, inflazioari eusteko neurriak ere hartu behar dira. Premiazkoena eta eraginkorrena produktu energetikoen eta oinarritzko elikagaien prezioen muga eta kontrola ezartzea litzateke.

9. EBZren independentzia ezabatzea

Banku zentralak inflazioaren arrazoiak ezagutzen dituzten arren, beraien politika moneta-eskaintza murriztean oinarritzen da, eskaria murrizteko helburuarekin. Ildo horretan, Europako Banku Zentralaren moneta-politika interes tasak igotzean oinarritu da (kreditua eskuratzea zailduz), baita soldaten gorakadaz ohartaraztean ere, bigarren txandako ondoriorik egon ez dadin. Beraz, argi geratzen da Europako Banku Zentralaren politika antisoziala eta defendatzen dituen interesak zeintzuk diren.

Horregatik, beharrezkoa da EBZ politika publikoen zerbitzura jartzea eta bere ustezko independentzia ezabatzea.

10. Informazio- eta gardentasun-maila handitzea

Argitaratzea, herritarren eskura egon dadin eta, aldi berean, gai horri buruzko azterketa- eta hausnarketa-prozesu bat sor dezan. HEHko ogasunek informazio osoa eman behar dute, Gipuzkoak egiten duen bezala.

11. Antolaketa, borroka eta greba

Soldatak defendatzeko modurik onena sindikatuen antolaketa eta borroka da. Greba ezinbesteko tresna da kapitalaren erasoari aurre egiteko, batez ere une honetan non kapitalak enpresa-mozkinak maximizatzen ari da langile-klasearen pobretze orokorraren kontura. ELAk borroka horretan duen konpromisoa berresten du.